



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko urtarrilaren 4an, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : JORAJURIA Ramuntxo

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 22a

3.ERABAKIA KANTINAKO BAZKARI BATEN SARIAREN FINKATZEA

Nomenklatura : 7.1

Alde batetik, laborantza eta elikaduren arloen eta bestetik elikatze sano, iraunkor eta denenganik eskuragarriaren arteko komertzio harremanen orekarentzat, 2018ko urrian onartu den Egalim legeak dio 2022ko urtarrilaren 1etik goiti, kalitatezko baita biologiko mozkinak sarraraztea baitezpadakoa dela eskoletako ostalaritzan.

Auzapez Jaunak azaltzen du, Ortzaizeko kantinako bazkariak prestatu eta ekartzen dituen Suhari bazkari egileak, Egalim formula berri bat proposatzen duela horrela banatua :

- bederen %50a “kalitatezko” mozkinekin (label bat duten mozkinak)
- horren barne, %25a mozkin ekologikoekin osatua
- eta %40a lekuko mozkinekin.

Zehazten du Suhari enpresak formula hori proposatzen duela, 0,20€ BEZ-a barne-ko emendioarekin bazkari bakoxtarendako, 2022ko urtarrilaren 1etik goiti.

Auzapez Jaunak oroitarazten du Herriko Kontseiluari, gaur familiei fakturatua zaien bazkarien prezioa 4,50€koa dela.

Auzapez Jaunak proposatzen du bazkari bakotxarentzat 0,20€ BEZ-a barneko emendio horren jasanaraztea edo ez familieei.

Auzapezaren aurkezpena entzun ondoan, eta luzaz deliberatu ondoren, Herriko konseiluak:

- ERABAKITZEN DU Ortzaizeko kantineko bazkarien prezioa 4,50€tan mantentzea 2022ko urtarrilaren 1etik goiti,
- Auzapeza AHALBIDETZEN DU urrats guzien segitzera baita dozier honi doazkion dokumento guzien izenpetzera.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 10

Balizko boz kopurua : 10

ALDE : 10

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko urtarrilaren 4an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/01/04an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/01/04an.

